Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

182 zenbakia
2017 **uztaila**

Prest!



BERBETAN: **CONCHI MAOÑO** ESKULTURGILEA ETA ARTISAUA

ERREPORTAJEA: **ERRONDOKO AUZO ETXEA** **BARKUA:** **LORELEI GREEN**

TOKIKOM

176-177-178-179-180-181-



Prest! izan

Harpidetu urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu edota norbaiti bidaltzea nahi baduzu, bete ondoko datuak eta igorri egizkiguzu.

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal 42
Deustua 48014
94 447 10 42

EDO HONA:
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Harpidetza Txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:







Babesleak

BIHOTZ ALAI DANTZA TALDEA

bekoerri kultur elkartea

MIKELDI DANTZA TALDEA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

berbaizu euskaraelkartea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Deustu ikastetxea Haur eta Lehen Hezkuntza

intxixu ikastola

PARE HAUTSI GABEKO KATEAK

zirikatzen!

ELORRI Bertso Eskola

deustuko gazte asamblea

ernai Deustua

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1983TIK

TABAKUN TALDEA DEUSTU

erraldoien ondalan konpartsa

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

aurkibidea

Maitane Muñoz - Irati Antepara — **Iritzia** 4

Abdoul Salam Coulibaly — **Gurera etorria** 5

e **erreportajea** 6
Errondoko Auzo Etxea

Apirilarekin batera, ez zen hilabete bat soilik hasi. San Inazio eta Ibarrekolanda auzoen artean, hainbat amets piztu ziren.

San Inazioko XL jaiak — **Jaiak** 10

Itsasoko soldaduska (1745) — **Behin batean** 12

Euskararen kaleko erabilera — **Artikulua** 14

b **berbetan** 16
CONCHI MAOÑOrekin

Bitxi bat zein zaldi bat egiteko gai da. Edozein materialekin. Denetarik erabiltzen du bere sormenlanetarako. Besteak beste, erraldoien buruak egiteko.

Kanaleko obren beste ikuspegi bat, 1956 — **Irudiak berbetan** 21

harkua bete herba 24

KIROLA Deustu Arraun Taldea

SAREKADA Klik eta klik

PINTXODROMOA Kabia kultur elkartea

KULTUR TXOTX Luken Lamikiz eta Danel Lauzirika

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
DEUSTUA 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Lur Mallea
Erredakzioa: Jon Antolin, Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez
Kolaboratzaileak: Maitane Muñoz, Irati Antepara, Berta Alcalde Arrizabalaga, Izaskun Araluzea Itza, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola
Argazkiak: Javi Garcia - Iñigo Azkona
Publizitatea: Ninbe Moreno
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017



Dantzari parranderen askatasuna

Udarekin, auzo eta herrietako jaiak datoz. Gautxoriak bihurtzen gara asko eta gorputza mugitzen eta askatzen hasten gara. Gauaren iluntasunarekin, opor usainarekin eta parranda tartean Beyonceren aldaka mugimenduak imitatzera ere ausartzen gara.

Negua mahai baten inguruan ematen dugu, bileretan, lanean, paperen artean, pentsatzen eta pentsatzen. Gure burua %100 eta gure gorputza amatatuta. Baina udarekin… gorputza askatzeko beharra sentitzen dugu. Barre egin, dantzatu, ligatu…

Dantzak askatzen gaitu edo askatasunak dantza egitera bultzatzen gaitu? Oiloa ala arrautza? Lehenago zer izan den ez dakit, baina dantza-gau bateko agujetak iraultzaileak direla esango nuke nik.

Espazioa gureganatuz txona-gunea gurea egiten dugunean, gorputza lotsa eta inseguritate guztiak alde batera utziz mugitzen dugunean, besteen iritziak bost axola digunean… horrelakoetan, gure barnean hasten den iraultza txiki horietako bat pizten da.

Baina, zoritxarrez, udako abestia errepikatzen den bezain beste, jaietan erasoak errepikatzen dira. Udako askatasun xirimola horretan, batzuk gure gorputzen askatasuna beraiena dela sinesten dutenean eta petardoren bat baboseatzera datorrenean dantza gauaren magia apurtu dela dirudi.

Apurtu dela dirudienean… extasian eta boteretuta dantzatzen dauden Beyonce eta Shakira trakets guztiak buelta ematen dutenera arte, erantzuten dutenera arte, babosoa harritu, damutzen eta beldurtzen denera arte.

Gure gorputzak, gaua, parranda eta dantza gureak direlako: kontuz erasotzaile dantzari parrandera guztiak erantzuteko prest gaude!

Irati Antepara
ikaslea eta bizizalea



Beste jai batzuk

Iruñeko hiriak 365 egun zain igarotzen ditu kaleak gorriz eta zuriz berriro ere apainduta ikusteko. Bi kolore hauek ikustearekin batera hasten dira sanferminak. Koloreak ez dira jai ezagun hauen ezaugarri esanguratsu bakarrak, goizeko zortzietan Iruñeko kaleak goitik behera korrika igarotzen dituzten zezenak ere jai hauen atal ahaztezinak dira. Baina tamalez bi ezaugarri hauek ez dira jai hauen ezaugarri bakarrak, izan ere, urte asko eta askoan bai San Fermin eta baita Euskal Herriko herri ezberdinetako jaietan emakumeen kontrako indarkeria nagusitzen da, eta honela, urteroko 'ohitura' bihurtu da honako hau ere.

Gau partean kale ilunetatik ibiltzeko beldurra, bakarrik edota begirada batekin mehatxatuta sentitzea… dira indarkeria honetara "ohituta" egoteak dakartzan ondorioak. Horregatik orain eta denok hau aldatzeko aukera izan dezakegu. Horretarako, gure herrietako jaietan ere indarkeria hau alde batera uzteko behin betiko pausoak eman behar ditugu.

Emakumeok ere jaietan gozatu eta ondo pasatzeko eskubidea dugulako, inongo beldurrik izan gabe. Beraz ospatu ditzagun beldurrik gabeko jaiak!



Abdoul Salam Coulibaly

Jatorria: Bamako, Mali
Bizitokia: Basauri
Lanbidea: soldatzailea eta galdaragilea

“Euskal-afrikarra sentitzen naiz”

Testua
Lur Mallea

Sei urte daramazu gure artean bizitzen. Pozik zaude?
Batzutan bai eta beste batzutan ez. Bizitzak ezarritako erronkei erantzuten jakin behar duzu geldiro-geldiro. Bilbora iritsi nintzenean ez nuen inor ere ezagutzen. Gurutze Gorrian eta CEARen lagundu zidaten. Harrezkero, asilo politikoa eskatu dut, ikasketak burutu ditut, lanean jardun naiz... azkenaldian ez nabil garai onenean asilo eskaera ukatu baititate, eta lanari utzi behar izan baitiot. Orain, beste paper batzurekin ari naiz batetik bestera.

Zergatik eskatu zenuen asiloa eta zergatik ukatu dizute eskaera?
Ni bizi nintzen inguruan gatazka armatua zegoen, eta asilo eskaeraren erantzunaren zain pasa ditut bost urte. Erantzun didate Malin egoera baretu denez eta kanpora alde egindako herritarrak itzultzen ari direnez nire bizitza ez dagoela arriskuan. Horregatik ukatu didate eskaera. Estatu espainiarrera heldu nintzenean egoera larrian nengoen, eta denbora asko zain eman dut. Ez da baleko argudioa nire ustez.

Zer deritzozu Espainiako asilo-politikari?
Oso eskaera gutxi onartzen ditu Espainiak, eta bai Espainiak bai Europak asilorako legeak aldatu behar dituztela deritzot, malgutu, alegia. Gobernuek asko dioten arren, benetan ez dute esandakoa betetzen.

Zelako laguntza jaso duzu?
Familiarik eta ezagunik ez nuenez laguntza handia eman didate. Harrera etxea batean bizi izan naiz, nagusientzako eskolan gaztelania ikasi dut, orientatzen irakatsi didate, Soldadura eta Galdaragintza gradu ertaineko titulua eskuratu dut, praktikak egin nituen enpresan lan egin dut eta, maiatzean asiloa ukatzean, lana amaitu zitzaidan. Ezin dut langabezia laguntzarik jaso nire egoera irregularra delako.

Ondo hartu zaitugu?
Euskaldunak oso jatorrak zarete besteekiko harremanetan. Oso desberdinak mailiarrekin alderatuta zentzu askotan. Esaterako, hemen harreman gehienak etxetik kanpo egiten dira, kalean edo tabernan. Malin, aldiz, alderantziz, etxeak denentzat zabalik daude, topagune dira.

Zerk harritu zintuen heldu berritan?
Mundu guztia presaka dabil, urduri, edozein ordutan jendea korrika dabil. Kalean inork ez ditu besteak agurtzen. Nor bere kasa dabil. Malin denok elkar agurtzen dugu, eta zerbaiten seinale da hori. Agurra funtsezkoa da.

Kirolaria zara.
Bai, oinez ibiltzen naiz edo korrika kalean zein mendian. Oscar Pasarin korrikalaria laguna dut, eta berari esker egiten dut kirola.

Oscar Pasarinek joan de ekainean mila kilometro korrika egin zituen errefuxituen eskubideen alde.
Lasterketa solidario askotan parte hartu du Oscarrek. Ekainean, sei kilometroko zirkuituan mila kilometro egin zituen zortzi egunetan dirua biltzeko eta CEAR Euskadi erakundearen lana ezagutzera emateko. Nik goiz eta arratsaldez kilometro batzutan lagundu diot. Oso erronka polita izan da. Azken egunean 700 bat lagunek parte hartu genuen.

Errefuxiatu, etorkin, atzerritar, afrikar... hitz horiekin identifikatzen zara?
Euskal-afrikarra sentitzen naiz. Dantzan ez dakidanez aldaka euskalduna dudala esaten dut. ‘Maliar’ hitza gustuko dut hitzarekin berarekin identifikatzen naizelako.



ERRONDOKO AUZO ETXEA

Apirilarekin batera, ez zen hilabete bat soilik hasi. San Inazio eta Ibarrekolanda auzoen artean, hainbat amets piztu ziren.

Testua eta argazkiak: Errondoko Auzo Etxea
twitter.com/Errondokopiztuz facebook.com/Errondokopiztuz

Apirilaren lehenean, San Inazio eta Ibarrekolandako hainbat auzotarrok urteetan hutsik egondako lokal baten ateak ireki genituen. Baina ezin esan daiteke egun horretako lorpenik handiena espazio baten berreskurapena izan zenik; apirilaren batean San Inazio eta Ibarrekolandan auzotarrontzako antolakuntza, elkargune eta kontrabotererako erreminta bat sortu genuen.

Denbora generaman auzoa itzaltzen ari zelako kezkatuta, auzoko komertzio txikien desagerpenak eta aisiarako aukera faltak jendearen pasibotasun eta indibidualtasunean eragin duelako.

Inposatutako errealitate gordin horren aurrean gure errealitate kontrajarri eta autonomoa amestu genuen. Gure interesak asetze aldera espazio bat askatzeko beharraz jabetzen hasi ginen, ideia multzo hauek praktikara eramateko.

Esan daiteke San Inazion okupazio mugimendua beti egon dela presente. San Inazioko Kultur Etxea (SIKE) desagertu ostean ere, bere tokia izaten jarraitu zuen auzoan, hainbat gorabehera tartean. Espazio bat gureganatzeko ahalegina behin eta berriro zapuztua izan da. Horren ondorioz, mugimendua pixkanaka ahultzen joan zen, 2017. urte hau indarrez hartu dugun arte.

Auzoa berpizteko konpromisoa hartuta, apirilaren lehenean Navarro Villoslada kaleko Eroski zaharreko ateak auzotar guztiontzako ireki genituen. Hogei urte inguru hutsik egondako lokal ahaztua orain bizitzaz bete



da. Zinema, antzokia, eszenatokia, bilera gela, liburutegia, jolastokia, jangela, hausnarketa txokoa, eztabaida gunea, gimnasioa edota tailerra bihurtu da, unearen arabera.

Ideologia desberdinetako pertsonak elkartu gara Errondokon. Askok ez genuen elkar ezagutzen, baina auzolanean amets bera lortzearen alde ari gara borrokan: kontzientziak piztuz auzo bizi eta aktibo bat lortzea.

Hasiera oso bizigarria eta indargarria izan zen guztiontzat. Lehenengo asteak gau eta egun eman genituen lanean: egunero asanbladak, garbiketa, zaintzak, paretak konpontzea eta margotzea, altzariak bilatzea, gunea txukuntzea eta atontzea… Lan egunak elkarren artean kateatzen ziren.

Auzoko eta inguruko jendea hurbildu zitzaigun laguntza eskaintzera. Bilboko gaztetxe eta gune okupatuetako jendea, inguruko herrietako lagunak… kanpotik jasotako elkartasuna eta laguntza berebizikoa izan da guretzat hastapenetan. Mahai inguru bat ere burutu genuen non Bilbo inguruko lokal okupatu eta autogestionatuetako kideek haien okupazio esperientziak azaldu zizkiguten.

Hilabete gelditu barik lanean igaro ostean, geldiune bat egin eta guztion artean patxadaz hausnartzeko beta hartu genuen, maiatzaren 7an lehen asanblada orokorra burutuz. Ordura arte egunero egiten genituen asanbladak, gauza asko baikenituen eztabaidatzeko, gehienak logistikarekin lotutakoak.

Maiatzaren 7an, baina, auzo etxearen alderdi teoriko eta politikoak landu genituen. Lehenengo aldia izan zen auzo etxean parte hartzen genuen pertsona guztiak elkartu eta hainbat gai eztabaidatzen genituela: internazionalismoa, feminismoa, antikapitalismoa… Mugimenduaren oinarriak, helburuak eta lan egiteko modua eztabaidatu genituen, espazioaren ildo politikoa zehazte aldera.

Zergatik Errondoko?

Lehen asanblada orokor horretan hartutako erabakietako bat espazioaren izena eta logo berriaren aukeraketa izan zen. Hasieratik ‘auzo etxe’ izenez definitu genuen gure burua, auzotar guztiontzako tresna izatea nahi baikenuen.

Askotan galdetu digute batean eta bestean ‘zergatik ez gaztetxe bat?’, eta gure eran-

“Hasieratik ‘auzo etxe’ izenez definitu genuen gure burua, auzotar guztiontzako tresna izatea nahi baikenuen”







tzuna berdina izan da beti: espazio honek auzoa aktibatzeko tresna izan behar badu, auzotar guztion elkarlanez behar du eraikia izan, eta ezin da sektore bakarrera mugatu.

Besteak beste, asanbladan espazioaren izen berria adostu genuen: Errondoko Auzo Etxea. Jakina denez, San Inazio eta Ibarrekolanda auzoak ez dira beti adreilu eta porlanezkoak izan. Orain errepide eta

eraikinak dauden tokian bertan, garai batean landa berde eta zabala zegoen. Bertan, baserriak, ortuak eta zenbait txakolindegi zeuden, tartean Errondoko izeneko bat, egun auzo etxea dagoen inguruan zegoena.

Errondoko izenarekin, auzo bizi, solidario eta aktiboa aldarrikatu nahi dugu, Azkuna eta Aburtoren hiri eredu burges, merkantilista eta elitistaren aurrean. Alta, hiriaren hedapen eta urbanizazio basatiak desagerrarazitako landa eremu naturala ekarri nahi dugu gogora, Francoren gobernu faxistak ingurua bereganatu eta adreiluz zein porlanez bete eta baserritarrak kanporatu baino lehen zegoena.

850 kilometrotatik

Pixkanaka-pixkanaka, espazioa bera eraldatzen joan gara: hormak konpondu, garbitu, margotu… Argazkietan ikus daitekeen bezala, mural bat ere egin dugu, Itziar Moreno auzokideak Roanneko (Frantzia) kartzelatik bidalitako marrazkiarekin.

Kartzelan preso egonagatik ere, sei urte luze hauetan zehar artelan ezberdinak egin izan ditu, emakumea ardatz harturik eta errepresioa zein dominazio forma guztiak salatuz. Artea kartzela barrutik borrokan jarraitzeko eta bere sentimenduak eta ideiak adierazteko tresna gisa erabiltzen du Itziarrek.

Hau horrela izanik Auzo Etxearentzako egindako murala sinbologiaz beteta dago. Kolore moreak borroka feminista adierazten du eta laranjak, berriz, okupazioari egiten dio erreferentzia. Horma apurtzen duen geziarekin, hutsik eta hilda dauden espazioen harresi zaharrak apurtu eta espazio hauek argitu eta berpiztearen aldarrikapena egin nahi du.

Udako programazioa

Uda bitartean Errondokoko tailer gehienak eten ditugu. Ez oporrak hartzeko, baizik eta indar guztiak auzolanean espazioa atontzen eta txukuntzen jarraitzeko. Oraingoz, liburutegia prest dugu jada, auzotarrek emandako liburuz beteta, eta sukaldea prestatzen ari gara.

Asteartetako zinema eta asteazkenetako asanbladak ere mantendu ditugu, taldearen funtzionamendurako ezinbestekoak direnak. San Inazioko jaietan ere presente egongo gara, Gazte Asanbladarekin batera txosna jarriz Lebante plazan eta uztailaren 26an I. Auzo Eguna ospatuz.

Oraindik ere lan asko dago egiteko, baina indarrak ez zaizkigu agortu. Lanean jarraituko dugu Errondoko auzotar guztiona izan dadin, denok parte har dezagun, eta behingoz auzoa herritarrona izan dadin.

Errondokori esker hainbat lotura sortu ditugu auzotarron artean eta pixkanaka konpromisoz osatutako sare txiki bat ehuntzen ari gara, Eroski zahar bateko lau paretetatik askoz haratago doana. Horregatik, gure ekintza ez da espaziora soilik mugatzen, hau berau herria antolatzeko aitzakia baino ez izanik, gure jomuga auzoa eta kaleak berpiztea izango baita beti.

“Lanean jarraituko dugu Errondoko auzotar guztiona izan dadin”

www.renault.es / 902 333 500



RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

SAN INAZIOKO XL JAIAK

Aurten San Inazioko Jai Batzordeak 40 urte bete ditu, eta horregatik dira jaiak XL tamainakoak. Umeentzako eta nagusientzako programazioa indartu dugu, eta jarduerak auzo osora zabaldu ditugu.

Testua eta argazkiak
San Inazioko
Jai Batzordea

Ikasturte honetan erronka handia izan dugu gogoan: jaiak benetan parte-hartzaileak izatea, eta auzotar guztion artean antolatzea.

Horregatik, ekainaren 23an ospatu genuen Eki Egunean Elorrieta, Ibarrekolanda eta San Inazioko Jai Batzordeok elkarlanean, egun osoko egitarau oparoa prestatu genuen. Beste urte batzuetan ere saiatu gara indarrak batu eta jaia elkarrekin ospatzen, baina ez dugu lortu batzuon eta besteon auzoko jaiak data desberdinetan izaten baitira, eta denok ez baitugu lan karga bera izaten urte sasoi horretan. Aurten, hala ere, denboraz ibili gara eta guztion artean antolatu ahal izan dugu jaia.

San Inazioko jaiei begira, prozesu parte-hartzaile bat jarri genuen martxan. Auzoko eragile, talde, eta komertzio desberdinengana hurbildu ginen, haien proposamenak entzun eta jaietan era batean edo bestean parte hartzeko gonbitea luzatuz. Ondorioz, aurten San Inazioko abesbatzaren ikuskizuna izango dugu Lebante plazan larunbatean, eta astean zehar umeentzako kantu tailerrak egingo ditugu.





Jaietan berrikuntza handiak izango dira aurten. Lehenik eta behin txosna guneko espazioaren banaketa. Jai Batzordearen 40. urtemuga ospatzeko aldaketa handien aldeko apustua egin genuen. Horregatik, Lebante enparantzaren banaketa zeharo desberdina da aurten. Eszenatokia karparen barruan dago, eta txosnak inguruan, itxura guztiz desberdina emanez plazari.

Oro har, aurtengo programa askoz 'auzotarragoa' da. Larunbatean XL Eguna ospatuko dugu, eta auzoko eta inguruko musika taldeen kontzertuak izango ditugu auzo osoan zehar. Gainera,

erasoen aurrean San Inaziorako espresuki sortutako protokolo feminista ere jarriko da martxan, Errondoko Auzo Etxeko talde feministak osatutakoa. Astean zehar ere hainbat ekintza egingo dituzte plazan.

Bestalde, iaz bezala, sagardotegia egongo da Lebanteko beheko aldean. Erronka handia izan zen sagardotegiarena eta auzotarrak nahiko pozik egon ziren planteamenduarekin. Izan ere, programazioari kaleko eskaintza gehitzeaz gain, sagardotegiari esker Lebanteko txosna gunea eta kale nagusiko barraka eta tabernen guneak lotzea lortu genuen.

Programazio guztia estu-estu sartu behar izan dugu. Jaiak beste urte batzuetan baino laburragoak izango dira, eta inoiz baino eskaintza zabalagoa daukagu. Egitarauaren baitan egun aldaketa batzuk ere egin behar izan ditugu, jarduera guztiak ondo ahokatze aldera. Hala ere, gustu guztientzako aukera zabala egongo da egunero, eta jarduerak San Inazio osora zabalduko dira, ez soilik Lebante enparantzara.







ARTEBI
MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN BILBOKO ESKOLA
MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA
Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

ITSASOKO SOLDADUSKA (1745)

1745eko martxoan Bizkaiko Diputazioak Espainiako Erregearen ministroaren gutuna jaso zuen 250 gizon eskatuz erregearen ontzietarako. Batzar Nagusiek eskaria onartu zuten eta kostaldeko herriei ezarri zieten bakoitzak zenbat itsasgizon eman behar zuen. Deustuari 12 eskatu zizkioten.

Testua: Hektor Ortega

Bizkaiko foruari esker, bizkaitarrek ez zuten soldaduskarik egin behar. Zama handiaz gain, zerbitzu higuingarria zen, pertsona libreei ez zegokiena, jopuen kontua. Baina bizkaitar harro haiek ez zeuden guztiz jare. Itsasoko zerbitzua egin behar zuten kostaldeko herriek, alegia, erregearen ontzietako eskifaietarako gizonak eman behar zituzten beharrizana zegoenean.

Adibidez, 1740ko uztailaren 12ko errege agindu bati Batzar Nagusiek baietza eman ostean, 300 gizon emateko beharra banatu zuten kostaldeko herrien artean. Zeren arabera? Herri bakoitzak zeukan itsasgizon kopuruaren arabera. Itsasoko jendearen atalean eskifaietako kideak ez ezik, gabarrariak, batelariak eta itsas-arotzak sartzen ziren. Ze herri zeuden zerrendaren buru? Ez da gaitza asmatzen: Bermeo, Plentzia, Lekeitio, Mundaka, Somorrostro, Ibarrangelu (Elantxobe-rekin) eta Algorta. Portugalete eta Barakaldo zetozen ondoren eta jarraian Deustua. Herrian 74 itsasgizon zeuden eta, ondorioz, 14 gizon eman behar izan zituen deialdi hartan. Deustuak baino itsasgizon gutxiagorekin, Bilbo, Ondarroa eta Abando ageri ziren, besteak beste.

1745eko martxoan Ensenadako markesak antzeko agindua bidali zuen 250 itsasgizon eskatzeko. Sasoi hartan (1739-48) Espainia eta Ingalaterrako koroak gerran zeuden munduko ozeanoetan. Ministroaren idatziak esaten zuenez, itsasgizonak behar zituzten hurrengo kanpainari ekiteko eta Guarnizoko (Kantabria) errege ontziolan egiten ari ziren San Felipe ontzia armatzeko. Galizia, Asturias eta Kantabriatik ezin ei zuten jende gehiago atera eta, ondorioz, Bizkaiari 250 gizon eskatu zizkioten. Jaurerriak erantzun zuen esanez baze portuak zeudela itsasgizonik gabe, aurreko urteetan erregearen ontzietarako, Caracaseko errege konpainiarako nahiz ontzi kortsarioetarako andana bat eraman ostean. Gerrak aldean zekartzan kalteak ahaztu barik: "Por el copioso número de los que han fallecido prisioneros en Ynglaterra y averse extinguido la navegación de comercio en que se habilitaban; de suerte que


Olabeaga, Deustuko portua (1785). Luis Paret.

solo han quedado ancianos y niños yneptos para otro exercicio que la pesquería a corta distancia del puerto por el continuo riesgo de corsarios yngleses que infestan la costa".


Ingalaterra eta Espainiako erregeen ontziak borrokan 1739-1748ko gerran

Kexatu bai, baina baita agindua bete ere. 250 gizon haiek herrien artean banatu zituzten. Portuek itsasgizonak eta artilleroak eman behar zituzten; kostaldeko gainerako herriek, berriz, ontzi-mutilak ("grumetes y pages"). Orduko hartan Deustuak hamabi gizon eman behar izan zituen, zortzi txo eta lau mutil laguntzaile ("page").

Deustuarrak, Algorta, Erandio, Sondika, Leioa eta Bermeok bidalitako gizonekin, *San Jose* patatxean ontziratu ziren. Orotara, 82 gizon. *La Amistad* ontzira, ostera, 110 gizon joan ziren. Azken 58ak *Santo Kristo* patatxera bidali zituzten. Apirilaren 10erako Portugaleten zeuden denak, ikuskariak ontzat emanda eta itsasoratzeko prest, haizea alde noiz jarriko begira.

Oposizioa

Hasieran aipatu dugun bezala, zerbitzua ez zen herritarren gustukoa, inondik inora. Berez zekarren zama astunaz gain, pertsona libreei ez zegokien eginbehartzat jotzen zuten. Itxura baten, kasu askotan ordezkoak joaten ziren errege ontzietara, soldataren truke. Adibidez, 1745eko deialdiko Deustuko hamabi gizonen artean ez zegoen herriko semerik. Zerrendaren arabera, sei bilbotar zeuden, eta gainerakoak Gorliz, Urduña eta Lemoakoak ziren. Bizkaitik kanpoko hiru gazte ere joan ziren Deustuaren partez: Tapia, Aviles eta Camaseko seme bana. Gainerako herrietan, ostera, gorabehera handiak antzeman daitezke. Esate baterako, Ibarrangeluk bertako semeez bete zuen bere kupoa, kanpotar bat izan ezik, baina Bermeok ekarri behar zituen 42 gizonetatik 2 baino ez ziren bermeotarrak, eta erdia Bizkaitik kanpokoak ziren.

Itsas-armadako ontziak eta, oro har, merkataritzako itsasontziak, Marcus Rediker bezalako adituek nabarmendu dutenez, kapitalistek langileen ustiaketarako antolatutako lehenengo eremuetakoa izan zen, industria iraultzako lantegien aurrekaria. Gizon askoren lan indarra aprobetxatzeko eraketa eta diziplina zurruna zegoen. Ondorioz, mutilek sarritan egiten zuten zerbitzu gogorretik ihes. Sasoi hartan desertoreentzat Afrikako espetxeetan urte biko egonaldia agindu zuten. Zigorraren beste aldean, itsasgizon haiei gainsoldata ematen zieten, fideltasuna bermatzeko.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

EUSKARAREN KALEKO ERABILERAK BEHERA EGIN DU BILBON

Soziolinguistika Klusterrak 2016. urtean egindako Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-Neurketak jasotako datuen arabera, 0.7 puntu jaitsi da euskararen kaleko erabilera Bilbon azken 15 urteetan.

Testua
Iñigo Calleja

2016ko Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketaren arabera, Bilbon azken hamabost urteotan behera egin du euskararen erabilerak 3.2 puntutik 2.5 puntutara. Datuen arabera, Bilbon zein Baionan gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzak euskara baino gehiago erabiltzen dira. Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketaren zuzendaria den Olatz Altuna Soziolinguistika Klusterreko teknikariaren esanetan, "ingurune sozialak guztiz baldintzatzen du erabilera". Euskararen gaitasuna eta eremu soziala elkar lotuta daudela adierazi du: "Zenbat eta ingurune sozial aldekoagoa, orduan eta hiztun gaituagoak". Eremu geografiko gehienetan euskarak bizitza sozialean "sarbide urria" duela gaineratu du, "eremu horietako hiztunek dituzte zailtasunik handienak euskaraz aritzeko". Taldearen babesik gabe, norbanakoek euskaraz bizitzeko "hautu kontzientea eta nekeza" egin behar dutela aitortu du. Baldintza sozial egokiak sortzea funtsezkotzat jo du, "onarpena eta babesa sentitzeko".

Euskal Herriko datuak eta ondorioak

2016ko udazkenean burututako kale-neurketan euskararen erabilera %12,6koa izan da Euskal Herrian; gaztelaniaren erabilera %76,4koa, frantsesaren erabilera %8,3koa eta beste hizkuntzen erabilera %2,7koa.

Hortaz, euskararen kale-erabilera apaldu egin da Euskal Herrian azken hamar urteetan. Beste hizkuntzen kale-erabilerak azken bost urteetan ere behera egin du.

Halaber, argi-itzalak daude lurraldeka, euskararen kale-erabileraren bilakaerari dagokionez: Bizkaian azken hamar urteetan behera egin du; Gipuzkoan azken bosturtekoan euskarak atzerakada izan du; Araban, eta batez ere Nafarroan, erabilerak gora egin du azken bost urtean; eta Ipar Euskal Herrian, bestalde, inoizko erabilera-indizerik baxuena jaso du.

Euskararen ezagutzaren araberako eremuetako euskararen kale-erabileraren bilakaerari dagokionez, Hego Euskal Herrian azken bost urtean, ezagutza gutxiagoko eremuetan mantendu da eta ezagutza gehiagokoetan atzera atzera egin du.

Euskal Herrian, zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. Izan ere, 27 urteko bilakaeran (1989-2016), haurren, gazteen eta helduen erabilerak gora egin du. Adinekoen erabilerak, berriz, etengabeko beherakada izan du. Hala ere, azken hamar urteotan adintalde guztietan atzerakada gertatu da.

Bestalde, emakumezko, haur, gazte eta helduek euskara gehiago erabiltzen dute eta horren portaera errepikatua da azken hiru edizioetan lurralde guztietan.

Haurren presentzia eragin handiko aldagaia da euskararen kale-erabileran, eta erabilera daturik altuenak haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean jasotzen dira. Eta erabilera daturik baxuenak berriz nagusiak haurren presentziarik gabe ari direla jaso dituzte.

HAMBURGON “GATIBU” SAN INAZIOKO DAVID RINCON

Joan den uztailaren 6an lagun batzuekin afaltzen zegoena atxilotu zuten Hamburgon (Alemania) San Inazioko auzotar David Rincon. Bere senide eta lagunek eta G20aren aurkako herri ekimeneko kideek “ziurgabetasun egoera eta babes juridiko falta” salatu dute.

Testua
Lur Mallea

Hamburgon G20aren goi bilerak iraun bitartean 200 bat lagun atxilotu eta 50 bat lagun atxiki ditu Alemaniako Poliziak. Guzti horietatik 40 bat daude oraindik “gatibu”. Horietako bat da San Inazioko David Rincon. Bere lagun hurkoek behin baino gehiagotan azpimarratu dute Hamburgon “gertaturiko istilu edo buruturiko ekimenetan ez zutela atxilotu, lagun kuadrillarekin afaltzen zegoenean baizik”.

Davidi, Hamburgon atxiloturiko gainontzeko kideei moduan, salbuespen legedia ezarri diote, “honek dakarren guztiarekin”. Atxilotu eta 16 ordura komisaldegitik epaile baten aurrera eraman zuten “bistatxo bat egitera, berarekin konfiantzazko abokatua egotea onartu ez ziotelarik, abokatuak berak bere burua Daviden abokatu bezala aurkeztu arren”.

David eta Hanburgon atxiloturiko gainontzeko kideak “ziurgabetasun eta babes juridikorik gabeko egoera kafkiano baten aurrean” aurkitzen dira. “Alemaniar estatuaren gatibu izanik, babesgabetasuna da haien egoera juridikoaren adierazle nagusiena”. Abokatuak David askatzeko prozedura desberdinak zabaldu dituen arren, prozedura horiei begirako erabakia hartzeko epaileak 15 eguneko tartea dauka, “jakin badakigun arren, instrukzio epea bere nahi eta borondatearen arabera nahi beste luzatu dezakela”.

Hainbat egunetan abokatuak ez du jakin zer den Davidi leporatzen diotena. Epaileari galdera egin arren, senide eta lagunek ez dute jakin zer leporatzen dioten, beraz, “ziurgabetaun egoera horren ondorioz, balizko defentsa juridiko eraginkorra prestatzeko informaziorik ez du izan abokatuak”.

David espetxez, gutxienez, birritan lekualdatu dute. Guzti hau, abokatuak berarekin egoteko eta balizko defen-tsaren prestaketari begirako “oztopoa” da. Zentzu horretan, “erabat kezkagarria eta bidegabea da” Daviden egoera senideen esanetan.



berbetan

CONCHI MAOÑOrekin

eskulturgile eta artisau deustuarra

“Etengabe birziklatzen ari naiz, egun guztiak

Bitxi bat zein zaldi bat egiteko gai da. Edozein materialekin. Denetarik erabiltzen du bere sormen-lanetarako. Besteak beste, erraldoien buruak egiteko. Deustuko erraldoienak eta beste askorenak Conchi Maoño eskulturgile eta artisauak sortuak dira.



Testua: Lur Mallea
Argazkiak: Humberto Bilbao



desberdinak dira niretzat”



Zertan ari zara orain?
Bitxiak egiten, zilarrarekin eta portzelanarekin saiakuntzak egiten. Bihar egun ekoizteko eta saltzeko. Gustuko dut bitxigintza betidanik.

Artisau gisa zein arlotan hasi zinen?
Zeramikarekin hasi nintzen. Urte asko eman nituen antzerki taldeentzat eszenografiako eta atrezzoko elementuak egiten. Erraldoiak ere egin ditut, asko.

Kukubiltxorentzat lan asko egindakoa zara. Zer, adibidez?
Kale antzezlanetarako eta aretoko antzezlanetarako beharrezkoa zen guztia: panpinak, txotxongiloak, latexarekin egindako objektuak...

Zein material landu duzu?
Denetarik, ia material guztiak erabili ditut bereizi gabe. Lehen igeltsuzko moldeekin lan asko egiten nuen, orain berriz molde gehienak silikonazkoak dira. Batez ere pieza asko egiteko erabiltzen dira silikonazko moldeak, hondatzen ez direlako. Igeltsuzko moldeak zurrunak izaki, apurtu beharra zegoen pieza ateratzeko.

Kukubiltxoren garaitik zer duzu gogoan?
Oroitzapen asko gordetzen ditut. Aintzindaria izan zen Euskal Herrian antzerki eta arte eszenikoen arloan. Gainera, oso bizitza luzea izan zuen taldeak. Proiektu guztiak ezberdinak ziren, eta lan berriren batekin hasi arte ez zegoen asmatzerik zer lan egingo nuen. Dena zen erronka.

“Ia material guztiak erabili ditut bereizi gabe”

▷▷ SAKONEAN

“Presiopean lan egiten duzunean oro har emaitza ez da ona izaten”

Zer duzu egiteke?

Gustuko lanean dihardut orain, zilarrarekin lanean, pieza txikiekin. Izatez, zilargintzan hasiberria naiz. Konplexua da, baina eginez eta probatuz ikusiko dugu zer ateratzen den.

Zein lanekin harrotzen zara?

Bilboko erraldoien artean, Pitxitxi eta Minarekin. Oso barregarri geratu ziren eta askatasunez lan egin nuen, antzik izango zuten ardurarik gabe. Presiopean lan egiten duzunean oro har emaitza ez da ona izaten. Denboraren presioarekin lan egiteko modua daukazu, baina bestelako presioekin ez naiz ondo konpontzen.



Beste antzerki talde batzurekin ere ibili zara lanean.

Noizbehinka antzerki talderen batekin parte hartzen dut. Deabru Beltzak taldeko azken ikuskizunerako, esaterako, larruzko kasko batzuk sortu ditut. Antzerkian edozein material erabili behar duzu, ezin duzu mugatu poliesterrera soilik. Batzutan kaskoak eskatzen dizkizute eta larruzkoak edo gomaespumazkoak izan behar dira.

Zein material duzu gustukoen?

Buztina, egia esan. Gauza asko egiteko aukera ematen du buztinak. Gauza handiak, adibidez, buruak gero modelatzeko, edo gauza txikiak, esaterako, bitxigintzan erabiltzeko.

Erraldoi egilea ere bazara. Zer dela eta?

Usadio handia dagoelako Euskal Herrian, eta oraindik ere eusten zaiolako erraldoien ohiturari. Ez du zailtasun berezirik erraldoientzat buruak egiteak norbaiten antza izan behar duela eskatzen dizutenean salbu. Iaz Agirre lehendakariaren erraldoiaren burua egiteko eskatu zidaten. Erraldoi bat ez da karikatura bat, baina ez dago urruti. Erraldoiak karikatura baten itxura

handiagoa izan ohi du benetako pertsonarena baino. Ez da erraza pertsona hori barregarri ez uztea.

Agirre lehendakariaren erraldoiari buruz zer dio jendeak?

Jendeari gustatu zaiola uste dut. Nik burua egin nuen, baina ez dut bukatuta ikusi oraindik.

Zure buruhandietako batekin aurrez aurre topo egiten duzunean, zer datorkizu burura?

Lanarekin pozik geratu banaiz sentipen goxoa izaten dut, gustura geratzen naiz begira. Baina beti ez dut pozik bukatzen. Batzutan nire buruari esaten diot 'hori beste era batera egin behar nuen'. Presiopean lan egiten duzunean, bizkor edo ez baldintza onetan emaitza ia beti ez da gustukoa izaten.

Erraldoi gehiagorik egingo duzu?

Entzun dudanez lehiaketa bat abian jarri dute Agirre lehendakariaren erraldoiari bikotea aurkitzeko. Erraldoiak kalejiran binaka ibiltzen baitira. Bikotea behar du hortaz, eta agian egin egin beharko dut.

Zure sormen-lanak non saltzen dituzu?

Enkargupean saldu ohi ditut. Deustuko tailerrean batik bat. Italian ere bai. Egia esan, ez dut askorik saltzen ez baitut publizitate askorik egiten.

Italian? Nolatan?

Italiarrek gustuko dute nire artisautza. Oro har italiarrak prest daude artisau lanengatik ordaintzeko. Kontaktuak ditut, eta euren bitartez saltzen dut han.

Plazaz plaza ibiltzen zara?

Merkatu eta azoketatik urruti nabil aspaldian. Lehen ibiltzen nintzen. Oso dibertigarria zen. Gazteagoa ere banintzen, eta kanpora irteteko eta jendea ezagutzeko gogotsu nengoen. Horretarako energia izatea beharrezkoa da, baina.

Krisitik burua altxatzen ari omen gara. Igarri duzu hobekuntzarik?

Lanean ari diren kideak ditut, ondo dabiltzanak, asko mugitzen direnak. Aurrera egiteko gakoa asko mugitzea da. Sare sozialak erabiltzeak, esaterako, egun ateak zabaltzeko balio du. Nire kasuan, etengabe birziklatzen ari naiz, egun guztiak desberdinak dira. Gauza oso desberdinak egiten ditut, eta ez dut neurgailurik. Bulegora zoazenean badakizu zer egin behar duzun, baina lanbide honetan ez dago jakiterik. Gaur 'zaldi bat egizu' esaten didate eta bihar gauza txikitxo bat egiteko. Kontrastez betetako mundua da hau.

Azkenaldi honetan sirenak sortu dituzu zeramikarekin.


Lehenengoak biluzik zeuden eta gerokoak jantzi egin ditut. Kamiseta eta bakeroak ere irudikatu dizkiet, zerbait desberdina egiteko. Gustuko zerbait aurkitzen dudanean bide desberdinak urratzen ditut. Eta norbaitek 'ze politak' esanez gero gehiago egiten ditut. Gauza txikiak, detailedunak egitea gustuko dut.

Eta zeramikazko antxoak.

Turistek bertoko zerbait tipikoa delakoan erosten dituzte Bilboko denda batean. Ez da tipikoa paparreko orratz bezala antxoa bat eramatea, baina jendeak gustuko du.

"Gustuko zerbait aurkitzen dudanean bide desberdinak urratzen ditut"





30.000 ahatetxo itsasadarrean igerian

Work On Projectek (WOP) abiatutako Estropatada lasterketaren bosgarren edizioa ospatu zen ekainaren 18an. Beste behin ere, WOP fundazioaren bidez gaixotasun neurodegeneratiboak ikertzeko dirua biltzeko antolatu dute plastikozko ahatetxoen lasterketa itsasadarrean. Aurten Deustuko zubitik eskegitako edukiontzietatik botatako 30.000 ahatetxok itsasadarra mantu horiz estali dute. Itsas Museoko kaian umeentzako tailerrak, puzgarriak eta kontzertuak izan ziren giroa alaitzeko. Pantaila bidez, lasterketaren jarraipena egiteko aukera ere izan zen Euskaldunako zubipetik.



Deustualdeko euskaldunak euskaraz berbaz

Irailaren 19an 19:00etan '72 ordu euskaraz' proiektua aurkeztuko dute Müllerenean. Euskal Herriko hainbat txokotan euskaldunak aktibatzeko antolatu diren prozesuetan inspiratuta, Deustualdeko euskaldunak euskaraz berbaz eta entzuten jarri nahi ditu Berbaizu euskara elkarteak udagoienean. Proiektuan parte hartzeko 16 urtetik gorakoa izan behar da eta Deustualdean lan egin, bizi edo ikasi. Bi eratan parte har liteke: 'Ahobizi' (euskara ulertzen duen orori euskaraz berba egingo diona eta ez dakienari lehen berba beti euskaraz egingo diona) eta 'Belarriprest' (euskara dakiena euskaraz egitera gonbidatuko duena eta euskaraz egin nahi duenari euskaraz egiten lagunduko diona). Izen-ematea irailean zabalduko da. Irailaren 28an Lasarte eta Aguraingo lagunak Bidarte udaltegira gonbidatu dituzte nork bere esperientzia konta dezan.

Tarifa arrunta izango du A6 busak 20018tik aurrera

Arangoitiko auzotarrek galdu dute Udalaren kontrako borroka. Arangoiti-Deustu ibilbidea egiten duen A6 Bilbobus lineak 2018tik aurrera tarifa arrunta izango du. Neurriaren kontra aurkeztutako 1.500 sinadurek eta EH Bilduren zuzenketek ez dute baliorik izan. Garraio publikoarekin Arangoiti auzoak izan duen "arazo historikoa" dela eta, 2009tik tarifa merkeagoa ordaindu dute A6 autobusaren erabiltzaileek. Udalaren iritziz Deusto Barri igogailua martxan dagoenetik auzotarrek garraio publikoa bermatuta dute. Bihotzaran Arangoitiko auzoelkartetik salatu dute igogailuak ez diela zerbitzua ematen Arangoitiko eremu garaienean bizi direnei: "Ez da inola ere auzoan behar genuen igogailua". Alfonso Gil Garraio zinegotziak adierazi du igogailuak funtzionatzen ez duenean doakoa izango dela A6 linea, baina esandakoa ez da idatziz jaso.

Errekaurti Eskegi arropa dendarentzat

Berbaizu euskara elkarteak Eskegi arropa dendari eman dio aurtengo Errekaurti saria. Saria euskararen normalizazioan laguntzen duten saltokiei ematen zaie eta, Eskegi dendari dagokionez, "bezero euskaldunoi eman ohi digun behar moduko arreta kontuan hartu dugu saria ematerakoan", adierazi dute Berbaizu elkarteko kideek. Eskegi da saria irabazten duen lehen arropa denda, zeina mota askotariko saltokiek irabazi duten, "frogatuz Deustualdean euskaldunok eta euskara behar moduan tratatzen duten saltoki asko badaudela".




Gimnasioko zaratengatik auzokideak kexu

Ramon y Cajal kaleko 31. atariko auzotarrek etxebizitzako aurrealdea pankartaz bete dute azpiko lonjan duten Lions gimnasio berriko zaratarekin gogaituta. Auzokideen arabera, pesen dardara eta zarata lehen solairutik seigarrenera nabari da. Hainbat salaketa aurkeztu dituzte Udaltzaingoan "soinua ikaragarria" delako, baina neurketaren bat egitera gimnasiora hurbiltzen diren aldiro "zatara egiteari uzten diotela" diote. Moma diskotekak kaltetutako auzokideek kontratatu duten zerbitzu juridiko berbera kontratatu dute, besteak beste, Udalaren jarrerarekin oso kritiko direlako. Gimnasioko kideen arabera, ez dute inor molestatzeko zaratarik egiten eta Udalak agindutako insonorizazioa egin dute. Argitu dutenez, neurketa eta salaketa guztiek orain arte euren alde egin dute. Are gehiago, arduradunen esanetan, auzokideekin hitz egiten ahalegindu badira ere ezinezkoa izan zaie.







Urtea: 1957

Txema Luzuriaga

Kanaleko obren beste ikuspegi bat

Cadenas Vicinay enpresaren eremutik begiratuz gero ikus zitekeen Kanaleko obren ikuspegi hau. Bertan nabarmentzen dira ezkerrean, bigarren mailan La Salle ikastetxea, atzean Sagrada Familia, eta eskuman Euskalduna auzoa. Kanala, jarduera gabe, ur putzu batzuekin, oso egokia zen ume eta gazteek izkirak harrapatzeko. Bilboko Portu Agintaritzak utzitako argazkia da.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!



ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

www.bilbohiria.com
BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia
berriak * musika
elkarrizketak

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43



Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net



KABIA
GASTRONOMIA · TABERNA · KULTURA
ORIXE KALEA 48
SANI

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

Oktoberfest
Etxeko berezitasunak:
txerri-ukondoa eta saltxitxak
Urtebetetze askariak ematen ditugu
Santxo Azpeitia, 3 - 94 447 22 83

Zer deritzozu itsasadarreko uraren kalitateari?



Aitziber
Deustu

Gustatuko litzaidake itsasadarra bere osotasunean erabiltzea, udan bainatzea, baina duen historia ez dugu ahaztu behar. Industria eta kutsadura handia izan du eta, zoritxarrez, bainatzeko itxarotea dagokigu.



Axular
Deustu

Kristoren itsasadarra da eta oso gutxi aprobetxatuta dago, ez da apenas erabiltzen. Egun ez dago garai bateko zikinkeria eta kiratsik.



Nerea
Deustu

Nire aititek dio urteak daramatzala itsasadarrean bainatzen eta inoiz ez dela gaixotu. Uraren kalitatea ikaragarria da. Ni urtero bainatzen naiz Erriberan.



Ladur
Deustu

Uraren kalitatea bikaina da. Betidanik egin dut igeri eta arraun itsasadarrean eta ez dut inoiz gaitzik izan.



Eliza
Bilbo / Paraguai

Itsasadarreko ura ez dago garbi, eta horrela jarraituko du luzaroan. Bainatzeko hondartza dago.



Lourdes
Deustu / Dominikar Errepublika

Ez naiz inoiz bainatu eta ez dut bainatzeko gogorik izan. Zikin dago eta gutxi zainduta.



>> DEUSTUKO ARRAUN TALDEA

"UNE HISTORIKOA", HIRU TRAINERUREKIN LEHIAN

Deustuko Arraun Taldeko kirol zuzendari Josu Ortube harro eta baikor agertu da taldeak bizi duen denboraldiarekin. Emakumeen taldeak aurten Bizkaian irabaztea eta Eusko Label Ligara heltzea balizkoa da Ortuberen arabera.

Testua: Iñigo Calleja - **Argazkiak:** Deustuko Arraun Taldea / Mireya Lopez

Deustuko Arraun Taldeak denboraldiari hasiera eman dionetik, Josu Ortube Deustuko Arraun Taldeko kirol zuzendariaren esanetan, "une historikoa" bizi du. Deustuk hiru traineru ditu lehian, eta "oso talde gutxik esan dezakete hori". Hirurak senior kategoriakoak dira: gizonen talde bat Kantauriko Arraun Elkarteko lehen mailan (KAE1) lehiatzen ari da, eta bestea, berriz, Kantauriko Arraun Elkarteko bigarren mailan (KAE2). Emakumeen taldeak, aldiz, Gipuzkoako Ligan jokatzen du eta Euskotren Ligan sartzea du helburu.

Horrenbeste talde lehiaketan izatea zuzendaritza taldearentzat lan handia dela aitortu du Ortubek, baita "oso harro egoteko" arrazoia ere. Mutilei begira, balorazio "baikorra" egin du. Taldearen erronka dauden postuan jarraitzea eta "talde bezala hazten joatea" da. Neskek, lehen lehia urtean, seigarren postuan amaitu zuten Gipuzkoako Liga. "Poliki-poliki lan egitea eta jarraitasunarekin hazten joatea da garrantsitzuena orain", azaldu du kirol zuzendariak. Hala ere, aurtengo denboraldian "iaz baino sasoi hobean" daude, eta lehiaketan "pauso bat aurrerago" eman dezakete. "Beharbada Bizkaian irabazi eta Eusko Label Ligara hel gaitezke". Denborak esango du, urtero geroz eta "lehiakorragoa" den txapelketan noraino iritsiko diren.

Emakumeen eta gizonen kategoriak oso "desberdinak" dira Ortuberen hitzetan. Iaz, emakumeen traineruak, taldean hasiberriak ziren neskekin, Kontxako Bandera jokatzea lortu zuen. "Gizonezkoen gehiengoa, aldiz, beteranoak izanda, oraindik ez da Donostian jokatzen den lehiaketan klasifikatzera heldu". Ortube pozik azaldu da neska gehiago hasi delako arraunean eta gainera "gazte-gaztetik".

Entrenatzaile berria

Deustuko Arraun Taldeak denboraldi honetarako entrenatzaile aldaketa izan du. Jon Elortegik, *Txapas* bezala ezagunak, Urdabaitik Bilboko taldera jauzi egin du. Esperientzia eta eskarmentu handikoa, Kontxako Bandera sei aldiz irabazi du, lau aldiz Urdaibairekin eta beste bi Castroko taldearekin. Halaber, Gerardo Ranero entrenatzaile ohiaren lana ere goraipatu du Ortubek, "oso lan txukuna egin du".

Mutilen lehen traineruan dago beste berrikuntza bat. Cristian Garma da patroi berria, bai Kaiku bai Castrorekin hainbat KAE txapelketa eta Kontxako Bandera irabazitakoa. Garmaren hitzetan, "lan ondo egiten badugu aurreko postuetan egongo da taldea".





http:// sarekada

muxutruk.net

Muxutruk.net sortu dute, nahi duzuna eman edo hartzeko

Zerbitzuak, objektuak, elikagaiak, tailerrak... Askotarikoak aurki daitezke web gune honetan. Hartu edo eman daitezke, nahitaez trukerik egin behar izan gabe. Kontsumo gizartearen aurkako alternatiba gisa sortu dute. Zerbitzu eta objektu bakoitza non dagoen zehaztuta ageri da, eta eskaera egiteko formulario bat ere bai. Zerbait eskaintzeko izena eman beharra dago webgunean bertan.

---

www.osagaiz.eus



Osagaiz, osasun-zientzien aldizkari berria

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen (OEE) eta Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) elkarlanetik sortu da *Osagaiz* aldizkaria, osasun zientziei buruzko artikulu zientifikoak argitaratzeko eta ikerketa taldeen lanak ezagutzera emateko helburuarekin. Osasunarekin erlazionaturiko ikerkuntza mota guztiak hartuko ditu barne. Izan ere, aldizkariak osasun arloko euskal komunitate zientifikoak eginiko aurkikuntza zientifikoen transferentzia-tresna izatea du xede.

NEUMÁTICOS MITXEL



Deskontu handiak!!!

Mekanika azkarra: gurpilak, filtroak, olio aldaketak, bateriak, frenoak, etabar...

Blas de Otero 59, Deustu [Ikastetxearen aurrean]

Kontaktua:
94 407 26 69
neumaticosmitxel@gmail.com

CONFORT auto

HANKOOK masters



LORELEI GREEN, EGUNEROKOTIK HARTZEN DUEN KANTAUTOREA

Musika etxetik jaso du Leire Apariciok. Amak eta nebak gitarra jotzen dute eta etxetik kanpo ere bere inguruan musikariak egon dira beti. Entzule ez ezik, musikaria ere bada Leire, eta Facebook kontua ireki zuenean Lorelei Green izena jarri zion, apurka-apurka bere izen artistikoa bilakatu dena.

Testua: Jon Intxaurraga / **Argazkiak:** Lorelei Green

Alemaniako folklorearen arabera abesten duen sirena den *lorelei* eta kuadrillako *green team*etik hartutako *green* nahastu zituen Leirek. Horrela jaio zen *Lorelei Green*. URIOLA atarian berriki azaldu duenez, Lorelei Green taldea berarekin jotzen duten musikariek osatzen dute, eta gaur egun Adrian Santamaria (perkusioak), Alex de Antonio (kontrabaxua) eta Iratxe Gaztañaga (bigarren ahotsa eta koruak) dira Leirerekin batera Lorelei Green.

2017a urte berezia izan da Lorelei Greenentzat. 'Aviones de Papel' diskoa atera baitute, Iñigo Ilarduyak Audio Effecten ekoitzia, zortzi kanturekin. Diskoa kaleratzea gutxi balitz, kanta berriak aurkezten ari dira, eta lan berria grabatzeko gogotsu daude. Aurtengo kanta kopurua uzta oparoa baino, "antolaketa kontua da" Leireren iritziz, izan ere, eginda zeuzkan kantak bi diskotan banatu ditu: zaharrenak, hiruzpalau urtetan jo dituenak, 'Aviones de Papel' diskoan grabatu ditu, eta berrienei "azken buelta ematea" falta zaie. Estudiora kantak ondo lotuak eroatea gustuko du Leirek, eta disko berriaren izenari buruz hasi zaigu berbetan: "'500 detalles más' jarri zioten izenburua, agian jarriko dut, ez dago batere gaizki". Kanta berri baten izena da eta kazetari batek sinekdokea libre erabiliz bere disko berria bataiatu zuen. Hortik izen-nahasketa.



Harrera ona izan du 'Aviones de Papel' diskoak. Bertatik bertara dabil Lorelei Green eta han-hemenka kontzertuak ematen ari dira, batzuetan Leire bakarrik, besteetan talde osoa. Oso pozik dago, eta urte askotako lanaren ondorioa dela diosku, ordu dezente eman baitute sare sozialetan eta taberna zein aretoetan diskoa mugitzen. Leku askotan jotzeko deitzen diote. Adibidez, uztailean Burgosen eta Galizian egon dira, eta laster Portuondon (Mundaka) joko dute, baina etxean bezala



inon ez. Leirek Deustuko Gazte Eguneko kontzertua ekartzen digu gogora: “Oso goiz jo genuen, ‘Gosari akustikoa’ izan zen, kontzeptua asko gustatu zitzaidan. Gu han agertu ginen, ez genekien zer giro egongo zen, eta giro aparta topatu genuen. Jendea adi egon zen, musika entzuten, oso polita izan zen. Kalean gurutzatzen duzun jendearen aurrean jotzeak bere xarma dauka”.

Inspirazio iturriak aipatzean, Leirek argi dauka: egunerokotik hartzen du, dela berari gertatzen zaizkion gauzak, dela ingurukoei gertatzen zaizkienak. Hori bai, ez dauka kantak konposatzeko prozesu zurruna, haatik, batzuetan kaletik dabilela esaldi bat sartzen zaio buruan eta harekin zer edo zer josten du etxean gitarra hartu arte. Besteetan, berriz, gitarrarekin jolasean ateratzen zaio gustuko melodia, eta ertz horri tiraka sortzen du kanta. Aitortu digunez, gitarra ez da bere indargunea, eta askotan besteen kantez baliatu da bere kantu propioak konposatzeko, esaterako Oasis edota Quique Gonzalez bertsionatu ditu, eta estilo nahasketak eragina izan du bere musikan.

Letrei dagokienez, kantautoreak ditu inspirazio iturri, besteak beste, Ismael Serrano, Quique Gonzalez edota Andres Suarez.

Eta etorkizunari begira zer? Hurrengo urtarrilean bideo bat grabatzeko asmoz dabiltza Leire eta lagunak, kanta berriak formatu erakargarrian aurkeztu nahi dituztelako, eta kalean, edo leku polit batean. Laukote batekin grabatzea dute buruan. Bien bitartean, Leirek aprobetxatu nahi du, lanerako ez dutela deitu, musikari ahalik eta denbora gehien eskaintzeko. Haur Hezkuntzan eta Psikomotrizitatean tituluduna da Leire, eta musikan datorrena datorrela aprobetxatzeko prest dago. Bukatzeko, taldekideentzako Leireren esker berbak: “Zorte handia izan dut bidean eta topatu ditudan pertsonak ere horren parte izan dira”.



P6
PABELLÓN Nº6
ARTE ESZENIKOAK
www.pabellon6.org
2017-2018 denboraldia
EGIN ZAITEZ BAZKIDEA
HAZTE SOCI@
temporada 2017-2018



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

ETXEKO BERMUTA ORTUKO ETA ITSASOKO TXIBIERROEKIN

Orixe kaleko 48. zenbakian dagoen Kabia elkartera jo dugu. Oraingo honetan larunbatetako bermut bereziaren baitan ortuko eta itsasoko txibierroak zelan prestatzen dituzten azaldu digute Nereak eta Zumaik.

Zailtasun maila: ertaina

Egiteko denbora: 10 minutu

Prezioa: ortuko txibierroak 3,5€

itsasoko txibierroak 4,4€

Berezitasuna: ore fina

Kontu batzuk

Larunbatetako bermuta indartzearen alde egin dute apustu San Inazioko Kabia elkartean. Horretarako etxeko errezeta sekretuarekin prestatzen duten bermut berezia, ortuko eta itsasoko txibierroak eta DJen musika saioak uztartzea erabaki dute. Osagai guztiak nahastuta "giro paregabea" sortzen da larunbatetan Kabian. Astegunetan pintxoak, tortillak, sandwichak, urdai frijitua eta gildak eskaintzen jarraitzen dute. Baita menuak ere, enkargupean. Eta auzoko jaietan, uztailaren 25, 29, 30 eta 31n hanburgesak eskainiko dituzte.



Zumai eta Nerea

KABIA
GASTRONOMIA · TABERNA · KULTURA
ORIXE KALEA 48
SANI

KABIA kultur elkartea
Orixe kalea 48 San Inazio 94 447 93 35
kabiakulturelkartea@gmail.com
facebook.com/kabia.kulturelkargunea
@KabiaSanInazio
Astegunetan: 11:00 - itxi arte
Asteburutan: 12:00-16:00 / 19:00-01:00

Zelan egin?

Sekretua orean dago, ia beti bezala. Hori diote Kabia elkarteko Nereak eta Zumaik. Horregatik prestatzen dute arreta handiz txibierroak frijitzeko orea. Errezeta sinplea bezain garrantzitsua da orearena: irina, gatza eta garagardoa nahastea. Oreak ez du lodiegia ez arinegia izan behar. "Besamel arina edota krema lodi baten parekoa". Txibierroak eta barazkiak orean busti eta olio asko eta beroa erabili frijitzeko. On egin!

OSAGAIAK

Piper gorria
Piper berdea
Tipula
Txibierroak
Irina
Garagardoa
Gatza
Olioa


Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...











ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO → Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa





LUKEN LAMIKIZ IBARRA

irakaslea

ISPILU BELTZA

Horrela du izena artikulu honetako gomendioaren izenak, euskaratuta; benetako izena ingeleraz da: *Black Mirror.* Badira hiru urte Britainia Handiko telesail hau emititzen hasi zirenetik, baina, berandu natorren arren, oraindik ikusi ez duzuenontzat interesgarria egingo zaizuelakoan nago.

Telesailak teknologia berrien eta sare sozialen argi-ilunak erakusten dizkigu, elkarren arteko loturarik gabeko istorioekin. Gaur egungo errealitatetik abiatzen da: egungo teknologiarekiko menpekotasunetik hasi (smartphonea, tableta, whatsapp, facebook, instagram…) eta etorkizunean sortu daitezkeenetara arte (begietako eta burmuinetako txipak, atsegin dut kopuruan oinarritutako gizartea…). Egoera kritikoak sortu eta muturreraino eramaten dira atal bakoitzean.

Gailu eta software berriek gure bizitzetan izan duten eta izango duten inpaktuaz hausnarrarazi nahi digu telesailak. Izan ere, nor ez da taberna batean egon bere lagunekin, isilik, baina aldi berean bertan ez dagoen norbaitekin mezuak bidaltzen? Nork ez du igo argazkiren bat sare sozialetara atsegin dut bat lortzeko? Nork ez du etengabe begiratu mugikorra mezuren bat dagoen ala ez ikusteko…

Telesaila ikusterakoan, ziur gailu berriak eta sare sozialak ikuspegi kritikoagoarekin ikusiko dituzuela eta neurri handiagoarekin erabiltzen hasi.



DANEL LAUZIRIKA

Elorri bertso-eskolako kidea

GIRO ONA DA GURE POZAREN SEINALE

Mullerren batzen gara
ederto pasatzen
nekea bota eta
gu barrez lehertzen
jendea behar dugu
bertsoak botatzen
animatu zaitezte
lotsak kanporatzen

Batzuetan eskastxo
baina ondo, bale
nahiz eta sarri egin
poto eta kale
giro ona da gure
pozaren seinale
zu itxaroten gaude
zatoz bertsozale

aferak

bertso dinamika] 2017.2018

IRAILAK 28

URRIAK 26

AZAROAK 30

ABENDUAK 19

URTARRILAK 25

OTSAILAK 24

_Bertso bazkaria



herrikotabernadeustu@gmail.com | elorribertsoeskola@gmail.com Deustuko Herriko Taberna

SANIKO JAIAK '17 XL urte!

UZTAILAREN 24TIK 31RA / DEL 24 AL 31 DE JULIO LEBANTE PLAZAKO GAUAK

THE RIFF TRUCKERS & BULTZ!

UZTAILAK 24 DE JULIO >>>>>>>> ASTELEHENA / LUNES >>>>>> 23:00

ARRATSALDEZ FANFARREA >>>>>> KOKOTEAN KOLPE

+ ALBER INUN >>>>>>>>>>>>>>> 21:00 BOITE TABERNAN

+ DJ KASTA >>>>>>>>>> 22:00 UNIVERSIDAD DE OÑATEN

+AFTERPARTY: JOKE DE VRIESE

ASTEARTEA/MARTES UZTAILAK 25 DE JULIO

+ THE BEAT SHADOWS >>>>>> 20:00 LA PARRA TABERNAN

+ DJ DOCTOR >>>>>> 22:00 UNIVERSIDAD DE OÑATE KALEAN

+ SAN INAZIO KANTARI >>>>>> 19:00 BOLERATIK HASITA

HAGGISH & BAZUKA'L BAKALA & NEGRACALAVERA & DIE WAGEN

UZTAILAK 26 DE JULIO SANIROCK'17

ASTEAZKENA/MIERCOLES >>>>>>>>>> 18:00

+ THE COWBOY >>>>>> 20:00 LA PARRA TABERNAN

UZTAILAK 28 DE JULIO

GAZTE EGUNA'17 OSTIRALA/VIERNES 21:30 >>>>>>>>>>>>

AIARALDEKO SOUND SYSTEM AKERJENBE SOUND SISTEMA & ZOROEN KLUBA

+ MAMAGIGI'S >>>>> 21:00RETAN UNIVERSIDAD DE OÑATE KALEAN

XL EGUNA! UZTAILAK 29 DE JULIO

>>>>>>>>>>>>> GAU ELEKTRONIKOA

I.VINK ILFLAMENCO & LANDERGROUND

LARUNBATA/SABADO >>>>>>>>>>>>>>>> 23:00

+ DJ MAIAKOVSKI >>>>> 12:00 KABIA ELKARTEAN

18:00ETATIK AURRERA KONTZERTUAK ETA SESIOAK AUZOKO TXOKO EZBERDINETAN

21:00RETAN AUZOKO ABESBATZAREN KONTZERTUA PLAZAN

A PARTIR DE LAS 18:00 CONCIERTOS Y SESIONES POR RINCONES DEL BARRIO

A LAS 21:00 CONCIERTO EN LA PLAZA DE LA CORAL DE SANI

UZTAILAK 30 DE JULIO

IGANDEA/DOMINGO 22:00

BERBENA!!

SUKAR TALDEAREKIN

+ LEE JUNIOR PEDRO ASTIGARRAGA >>>>>>> 19:30

+ THE COWBOY BAR BOITE >> 20:00

+AFTERPARTY: DJ ADRIÁN RKM

+ RECAMBIOS ZORROZA UNIVERSIDAD DE OÑATE >>>>>>> 20:00

SANIKO JAI BATZORDEA

AUZOTARROK BILBOKO AUZOTARRAK JAI BATZORDEAN